

Alkatearen probidentzia

Oñatiko Udaleko Kale garbiketako departamenturen egoera ikusita: kale garbiketako peoi gidari bat bajan dagoen bitartean lanpostua betetzeko pertsona bat kontratatzeke proposamena egiten da.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere **58. Artikuluak** dio:

"1- Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.

2- Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.

3- Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4- Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoetatik baliatzeko aukera egongo da."

Oñatiko Udalak duen lan poltsan ez dago inor eta inguruko Udalek ez dute lan poltsarik, beraz, Lanbidera jo behar da.

Kale garbiketako peoi gidaria izatea beharrezkoa da, zerbitzua ondo emateko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu zerbitzu publikoetatik hautagai bat izendatzea, kale garbiketako peoi gidari bat kontratatzeke.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN DUT:

1.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, kale garbiketako peoi gidari postua betetzeko, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Oinarritzko Estatutuaren Legearen testuategia onesten duena, 10.1.b artikulua arabera, ordezkatzeko langilearen absentziak irauten duen bitartean, lanpostua gordetzeko eskubidearekin (2720/1998 Errege Dekretua, 4. Artikuluan), enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazitako lan-kategoria horretako hautagaiak aukeratuz. Hileko soldata gordina ordezkatzeko duen langilearen lanpostukoa izango da, parte proportzionalean.

2.- Honako profil hau eskatzen da:

Kale garbiketako peoi gidaria (E), postua betetzeko:

Lan kontratu mota: aldi baterakoa, ezintasun egoera irauten duen bitartean

Jardunaldia: %100

Hileko soldata gordina: Kale garbiketako peoi gidariari dagokiena

- Beharrezko prestakuntza:

- Eskola ziurtagiria
- C gidabaimena
- Gidarien kualifikazio txartela
- Euskara 1HE

- Prestakuntza osagarria:
- Prestakuntza osagarria
 - Lanbide-esperientzia

3.- Hautagaiak hautatzeko, **balorazio-irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

3.1 Beharrezko prestakuntza:

- Eskola ziurtagiria
- C gidabaimena
- Gidarien kualifikazio txartela
- Euskara 1HE

3.2 Prestakuntza osagarria (gehienez 2 puntu):

- Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak: deituriko lanpostuaren eginkizunekin edo honetan jarduteko trebetasunekin loturiko gaitan zerikusi zuzena dutenak → 0,05p orduko
- B+E motako gidabaimena izatea puntu 1ekin baloratuko da.
- C1+E motako gidabaimena izatea 2 punturekin baloratuko da.

3.3 Lanbide-esperientzia (gehienez 10 puntu):

- Administrazio publikoan kale garbiketako peoi gidari (E) lanpostuan izandako esperientzia → 0,20pt/hilea
- Administrazio publikoan bestelako peoi gidari bezala izandako esperientzia → 0,15 pt/hilea
- Administrazio publikoan kale garbiketako peoi (E) bezala izandako esperientzia → 0,12 pt/hilea
- Administrazio publikoan bestelako peoi bezala izandako esperientzia → 0,09 pt/hilea
- Enpresa pribatuan lanpostuarekin zerikusia duten funtziotan izandako esperientzia → 0,05 pt/hilea

4. Epaimahai kideak:

GGBB eta Antolakuntzako arduraduna
Kale Garbiketako arduraduna

Oñatin, sinadura elektronikoan agertzen den datan
Alkatea
Sin.: Iزار Elorza Arregui



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Kale garbiketako peoi gidaria Lanbide bitartez
CSV/EKS:	SINAbfedb8b3-6a69-4601-b457-641c65fc5235